

Ordenagailu- fitxategiak katalogatzeko prozedura- eskuliburua

2017ko martxoa

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
ESKULIBURUAREN HELBURUA	4
APLIKAZIO-IRIZIPIDEAK	4
Informazio-iturriak	4
Katalogazio-hizkuntza	5
Katalogazio-modulua	5
ORDENAGAILU-FITXATEGIEN KATALOGAZIOA	6
GOIBURUA (EE)	6
T001 KONTROL ZENBAKIA (EE)	8
T003 KONTROL ZENBAKIAREN IDENTIFIKADOREA (EE)	8
T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA (E)	9
T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA – BALIABIDE ELEKTRONIKOA (E)	10
T008 LUZERA FINKOKO INFORMAZIO-KODEAK – OROKORRA + ORDENAGAILU-FITXATEGIAK (EE)	14
T017 LEGE GORDAILUAREN ZENBAKIA (E)	20
T020 LIBURUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA (ISBN) (E)	21
T024 BESTE IDENTIFIKATZAILE NORMALIZATU BATZUK (E)	22
T035 SISTEMAREN KONTROL-ZENBAKIA (E)	23
T040 KATALOGAZIO-ITURRIA (EE)	24
T041 HIZKUNTZA-KODEA (E)	25
T080 SAILKAPEN HAMARTAR UNIBERTSALEKO ZENBAKIA(E)	27
T084 BESTE SAILKAPEN ZENBAKI BAT (E)	29
T100 SARRERA NAGUSIA – PERTSONA IZENA (EE)	30
T110 SARRERA NAGUSIA – ERAKUNDE KORPORATIBOAREN IZENA (EE)	30
T111 SARRERA NAGUSIA – BILTZARRAREN IZENA (EE)	30
T130 SARRERA NAGUSIA – IZENBURU HAUTATUA (EE)	31
T245 IZENBURUAREN AIPUA (EE)	32
T246 IZENBURUAREN ALDAERAK (E)	35
T250 EDIZIOAREN AIPUA (E)	37
T256 ORDENAGAILU-FITXATEGIAREN EZAUGARRIAK (EE)	38
T260 ARGITALPENA, BANAKETA ETA ABAR (E)	39
T300 DESKRIBAPEN FISIKOA (E)	40
T4XX SERIEAREN EREMUA	43
T490 SERIEAREN AIPUA (E)	43
T500 OHAR OROKORRA (E)	44
T505 FORMATUDUN EDUKIARI BURUZKO OHARRA (E)	45
T516 ORDENAGAILU- EDO DATU-FITXATEGI MOTARI BURUZKO OHARRA (E)	48
T521 JASOTZAILEARI BURUZKO OHARRA (E)	50
T530 ESKURAGARRI DAUDEN BESTELAKO EUSKARRI FISIKOEI BURUZKO OHARRA (E)	52
T536 FINANTZAZIOARI BURUZKO INFORMAZIO OHARRA (E)	53
T538 SISTEMAREN EZAUGARRIEI BURUZKO OHARRA (E)	54
T540 ERABILERA- ETA ERREPRODUKZIO-BALDINTZEI BURUZKO OHARRA (E)	56
T546 HIZKUNTZARI BURUZKO OHARRA (E)	57
T586 SARIEI BURUZKO OHARRA (E)	58
T594 IZENBURUARI ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUARI BURUZKO OHARRA (E)	59
T655 INDEXATZEKO TERMINOA – GENEROA / FORMA (E)	62
T7XX SARRERA GEHIGARRIAK – INFORMAZIO OROKORRA	64
T700 SARRERA GEHIGARRIA – PERTSONA IZENA (E)	65
T710 SARRERA GEHIGARRIA – ERAKUNDEAREN IZENA (E)	66
T711 SARRERA GEHIGARRIA - BILTZAR-IZENA (E)	67

T740 SARRERA GEHIGARRIA – IZENBURU ERLAZIONATU EDO ANALITIKO KONTROLATUGABEA (E)	68
T773 ITURRI DOKUMENTURAKO LOTURA (E)	69
T776 FORMATU FISIKO GEHIGARRI BATERAKO LOTURA (E)	71
T777 “HONEKIN BATERA ARGITARATUA” LOTURA (E)	73
T800 SERIEAREN SARRERA GEHIGARRIA - PERTSONA-IZENA (E)	76
T830 SERIEAREN SARRERA GEHIGARRIA - IZENBURU HAUTATUA (E)	77
T856 BALIABIDE ELEKTRONIKOEN KOKAPENA ETA SARBIDEA (E)	78
T9XX TOKIAN TOKIKO EREMUAK	80
NULL	81
LOTURA BIDEZ BISTARATZEKOAK	82
1 ERANSKINA Ordenagailu-fitxategietarako generoen zerrenda	84
BIBLIOGRAFIA	94

ESKULIBURUAREN HELBURUA

Eskuliburu honek ordenagailuko edozein fitxategi mota katalogatzeko irizpideak ematen ditu. Fitxategi horiek hainbat motatakoak izan daitezke:

- ***Datu-fitxategiak*** (zenbaki, letra, sinbolo edo horien guztien konbinazio gisa emandako informazioa)
- ***Programak*** (egiteko batzuk burutzeko argibide edo errutinak; egiteko horien artean, datu-prozesua)
- ***Jokoak***
- ***Multimedia interaktiboak.***

Euskarri elektronikoan argitaratutako gainerako baliabide bibliografikoak edukiaren arabera dagokion ereduari katalogatuko dira: testuala, kartografikoa, eta abar.

- CD-ROM eta DVD-ROM gisa argitaratutako liburu digitalak (e-book) "Monografiak" katalogazio-moduluari katalogatuko dira.
- CD-ROM eta DVD-ROM formatuko serieko argitalpen digitalak (egunkariak eta aldizkariak) "Baliabide jarraituak" katalogazio-ereduan.
- CD-ROM formatuko mapak "Mapak" katalogazio-ereduan.

APLIKAZIO-IRIZPIDEAK

Informazio-iturriak

Katalogazio-arauetan honako informazio-iturri hauek ezartzen dira, lehentasun-hurrenkera honetan:

Ordenagailu-fitxategietarako informazio iturri nagusia programaren hasieran izenburua formalki aurkezten duen pantaila da. Hasieran ez badago izenburuaren aipamen formalik, informazioa modu formalean aurkezten den beste atal batetik hartuko da, esaterako, menu nagusiko pantaila.

Beharrezko informazioa ez badago eskuragarri dokumentuan bertan, honako iturrietatik hartuko da, lehentasun ordenaren arabera:

- Diskoak, karreteak, kartutxoak eta abar, edo jatorrian horiei erantsitako etiketak.
- Editoreak, sortzaileak eta abar fitxategiarekin batera argitaratutako informazioa.
- Editoreak, banatzaileak eta abar emandako ontzian inprimatutako informazioa.

Informazioa hainbat iturritan agertzen bada, osatuagoa batzuetan beste batzuetan baino, osatuena dena hartuko da.

Fitxategiak fisikoki banatuta dauden zatiak baldin baditu, informazio-iturri nagusia horri ontzia edo horri erantsitako etiketa izango da, dokumentuan bertan eta zatien etiketetan agertzen ez den izenburu kolektiboa daukanean.

Informazioa ez badago eskuragarri, ez iturri nagusian, ezta aurretik aipatutakoetan ere, lehentasun ordena honen arabera, honakoetatik hartuko da:

- Fitxategian argitaratutako beste deskribapen batzuk.
- Beste iturri batzuk.

Katalogazio-hizkuntza

Honako kasuak katalogatuko dira **euskaraz**:


- Hizkuntza bakar edo nagusia euskara duten dokumentuak.
- Dokumentu elebidunak (euskara - gaztelania), bi hizkuntzetako bat ere nagusia ez denean (testu paraleloak, dokumentu kontrajarriak eta abar).
- Dokumentuak bi hizkuntza edo gehiagotan, horietako bat euskara bada, betiere dokumentuko hizkuntza nagusia denean.

Jatorrizko dokumentua euskarazkoa denean eta gaztelania ez den beste hizkuntza batera itzulita dagoenean (esaterako, Atxagaren "Gizona bere bakardadean" liburuaren ingelesezko edizioa).

Honako kasuak katalogatuko dira **gaztelaniaz**:

- Hizkuntza bakar edo nagusi gisa gaztelania duten dokumentuak.
- Euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuetako dokumentuak (frantsesa, ingelesa...). Jatorriz euskaraz sortu eta gaztelania ez den beste hizkuntza batera itzultako dokumentuak izan ezik; kasu horietan, euskaraz katalogatuko dira.

Katalogazio-modulua



ORDENAGAILU-FITXATEGIEN KATALOGAZIOA

GOIBURUA (EE)

Bibliografia-erregistroaren lehenengo eremua dugu. Eremu finkoa da, bere luzerak erregistro bakoitzaren lehen 24 posizioak (00-23) hartzen ditu eta erregistroa prozesatzeko beharrezko den informazioa jasotzen du.

- Erregistro berrietarako, eremu “**lehenetsiak**” erabil daitezke.

“Kontrol-mota”, “Karaktereen kodifikazio eskema”, “kodifikazio-maila” eta “Zati anitzeko baliabide baten erregistro-maila” posizioak hutsik utzi behar dira.

- “**Kodifikazio-maila**” posizioan 5 lehenetsita duten eskuratzetatik datozen erregistro guztiak zuriz (#) utzi behar dira.

Jarraian, posizio garrantzitsuenak zehazten dira:

05 Erregistroaren egoera

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da, eta erregistroaren eta fitxategiaren arteko lotura adierazten du, horren mantentze-lanetarako.

b *Berria*

06 Erregistro-mota

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da, eta erregistroaren osagaien ezaugarriak definitzen ditu. Bideo-grabazioen kasuan honakoa izango da:

m *Ordenagailu-fitxategia.* Baliabide elektroniko mota hauetarako erabilia: ordenagailuko softwarea (programak, jokoak eta iturriak barne), zenbakizko datuak, ordenagailurako multimedia, lineako sistema edo zerbitzuak. Beste baliabide elektroniko mota batzuk aspektu esanguratsuenaren arabera kodifikatzen dira (esaterako, testu-materiala, material grafikoa, mapak, soinuak, musika, irudia mugimenduan). Zalantza baduzu edo aspekturik esanguratsuena zehaztu ezin bada, dokumentua ordenagailu-fitxategitzat joko da.

07 Maila bibliografikoa

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da, eta erregistroaren maila bibliografikoa adierazten du.

m *Monografia.* Dokumentua unitate fisiko bat da, zati bakarrean ondo osatua, edo banatutako zati kopuru mugatu baten bidez osatzen dena (esaterako, hainbat liburuki dituen monografia bat).

08 Kontrol-mota

Ez du mota zehazten. Deskribatutako dokumentuari ez zaio motarik aplikatzen.

09 Karaktereen kodifikazio eskema

Erregistro batean erabilitako karaktereen kodifikazio sistema zein den zehazten du.

MARC-8. Marc21ean deskribatutako 8 biteko joko.

17 Kodifikazio-maila

Kode honen bitartez informazio bibliografikoaren eta/edo MARC erregistroaren edukien deskribapen-maila adierazten dira.

Maila osoa. Deskribapen osoa, ale fisikoaren zuzeneko azterketaren ondoriozkoa.

18 Katalogazio deskriptiboaren forma

Kode alfanumeriko bat da, eta Katalogazio Arauei erreferentzia eginez adierazten ditu erregistroaren datu deskriptiboaren ezaugarriak. Kasu horietan, «**ISBD puntuaziorik gabe**» hautatuko dugu, hori baita aukera lehenetsia.

c **Puntuazio gabeko ISBD.** Erregistroaren zati deskriptiboak ISBDren puntuazioari buruzko arauak jasotzen ditu, baina ISBD puntuazioa ez da azpiero batena amaieran agertzen. Gure kasuan, kode hau erabiliko dugu beti.

19 Zati anitzeko baliabide baten erregistro-maila

Ez dago zehaztuta edo ezin da aplikatu

Goiburua	Goiburua
Erregistroaren egoera	n
Erregistro-mota	m
Maila bibliografikoa	m
Kontrol mota	
Karaktereen kodifikazio eskema	
Kodifikazio-maila	
Katalogazio deskriptiboaren forma	c
Zati anitzeko baliabide baten erregistro-maila	

T001 KONTROL ZENBAKIA (EE)

Sistemak automatikoki sortzen duen kontrol-zenbakia jasotzen du. TITN zenbakiarekin bat dator. Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

```
..T001:  
00769190
```

T003 KONTROL ZENBAKIAREN IDENTIFIKADOREA (EE)

Zentro katalogatzaileari dagokion MARC kodea. Sistemak modu automatikoan sortzen du eremu hau. Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

Gure kasuan, dagokigun MARC kodea honako hau da:

ES-VgaRLPE

```
..T003:  
ES-VgaRLPE
```


T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA (E)

Dokumentu baten ezaugarri fisikoei buruzko informazio berezia da, modu kodifikatuan emandakoa. Informazioa dokumentu oso bati zein horren zati bati buruzkoa izan daiteke, esaterako, atxikitako materialari buruzkoa.

Eremu horrek ez du, ez adierazlerik, ez azpieremu-koderik. Elementuen posizioak berak definitzen ditu elementuok.


T007 eremuak zuhaitz-egitura arrunta du. AbsysNet-ek eremu horretarako aurkezten dituen aukeretatik, azaltzen ari garen materialera ondoen egokitzen dena hautatuko dugu, kasu honetan ordenagailu-fitxategiak.

T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA - BALIABIDE ELEKTRONIKOA (B)

Dokumentu baten ezaugarri fisikoei buruzko informazio berezia da, modu kodifikatuan emandakoa. Informazioa dokumentu oso bati zein horren zati bati buruzkoa izan daiteke, esaterako, atxikitako materialari buruzkoa.

Eremu horrek ez du, ez adierazlerik, ez azpieremu-koderik. Elementuen posizioak berak definitzen ditu elementuok.

T007 eremuak zuhaitz-egitura arrunta du. T007 espezifikoa «**Baliabide elektronikoetarako**» hautatuko dugu.



POSIZIOAK

00- Material-mota

Letra bakarreko kode alfabetikoa, dokumentua zein material motari dagokion adierazten duena (esaterako, programak, datu-fitxategiak, irudi-fitxategiak, audio eta bideo fitxategi digitalizatuak eta abar). Orokorrean, ordenagailu bidez irakur daitezkeen datu digitalizatuak, programa-kodeak eta abar dira, ordenagailu baten bidez ikusi, prozesatu edo exekutatu daitezkeenak.

c **Baliabide elektronikoa.** Dokumentuak ordenagailu bidez prozesatzeko edo erabiltzeko baliabide bat hartzen du barnean.

01 - Materialaren izendapen espezifikoa

Dokumentu bati dagokion material mota espezifikoa.

j	Disko magnetikoa. Informazioa gordetzeko euskarri digitala. Normalean, Mylar disko txiki bat izaten da, datuak erregistratzeko aukera ematen duen material magnetiko batez estalia. Disko magnetikoak hainbat tamainatakoak dira. Disko malguak, disko gogorrak, ordenagailuko disketeak edo diskete malguak izenez ere ezagunak dira.
o	Disko optikoa. Datuak biltegitatzeko grabazio-azalera baten gainean laser bidez sortutako zulo mikroskopikoak erabiltzen dituen euskarria (pit). Grabatutako datuak optikoki irakurtzen dira. Normalean, disko horiek irakurketarako euskarri bat dira. Disko optikoen formatuek honakoak hartzen dituzte barne: CD-A, CD-I, CD-R, CD-ROM, CD-ROM-XA, DVD-ROM eta Photo CD. (Baita Blu-ray, Wii eta UMD ere). (Lehenetsita)
r	Urrunekoa. Urrunetik sartu, prozesatu, exekutatu eta abar egin daitekeen baliabide elektronikoa. Kasu honetan, baliabide elektronikoa ordenagailu batera elektronikoki konektatutako sarrera eta irteera dispositiboen bidez erabiltzen da. Sarritan, horrek esan nahi du sare baten bidezko konexioa dagoela.
z	Bestelakoa. Definitutako beste kodeak ez dira aplikagarriak. (adib., Software txartelak)

03 - Kolorea

Kolorearen ezaugarriak.

a	Monokromoa. Irudiak beltza ez den kolore bakarrean ematen dira (esaterako, arrosa eta zuria, marroia eta zuria). Irudiak zuri-beltzean badaude, b kodea erabiltzen da.
b	Zuri-beltzean. Irudiak zuri-beltzean egiten dira.
c	Polikromoa. Irudia kolore batean baino gehiagotan inprimatu edo exekututzen da. (Lehenetsita)
m	Mistoa. Obra edo bilduma irudien konbinazio bat da; kolore bakarrekoak, zuri-beltzak, polikromoak, eskuz margotuak edo/eta bestelakoak.

04 - Neurriak

Baliabide elektronikoa kodifikatzeko erabilitako euskarriaren neurriak.

Neurri ohikoenak soilik adieraziko dira. Kasu askotan, neurriak euskarri magnetiko edo optiko bat daukan ontziari aplikatzen zaizkio. 007/04 eremuan soilik erabiliko dira dokumentuaren neurriekin bat datozen kodeak, deskribapen fisikoan eman diren neurrien arabera. Ez badatoz guztiz bat, z kodea erabiliko da.

a	3 ½ hazbete. = 9 cm. Euskarriaren diametroa: 3 ½ hazbete. Normalean disko magnetiko baten diametroari dagokio.
g	4 ¾ hazbete. = 12 cm. Euskarriaren diametroa: 4 ¾ hazbete. Normalean disko optiko edo magnetiko-optikoen diametroei dagokie. (Lehenetsita)

n	Ez aplikagarria. Dimentsio fisikoak ez zaizkio baliabide elektronikoari aplikatzen. Kode hori urruneko ordenagailu-fitxategietarako eta euskarri espezifiko aldakorra duten baliabide elektronikoetarako erabiltzen da. (Urruneko fitxategiak)
z	Bestelakoa. Definitutako beste kodeak ez dira aplikagarriak. (adib., Software txartelak)

05 - Soinua

Adierazi soinuaren produkzioa ordenagailu-fitxategiaren parte den.

#	Soinurik gabe (mutua). Ez du soinurik egiten.
a	Soinua Digitalki kodifikatutako soinua eduki edo egin dezake. (Lehenetsita)

06-08 - Irudiaren kolorearen sakontasuna

 	Ez da erabiltzen.
------------	--------------------------

09 - Fitxategi formatuak

Adierazi baliabide elektronikoaren fitxategia edo fitxategiak formatu edo mota berekoak diren digitalki birformateatutako materialetarako. Balioek ez dituzte adierazten erregistro eremu aldakorretan barne egon daitezkeen fitxategi formatu mota espezifikoak. Informazioak erabilitako fitxategi kopurua adierazten du.

a	Fitxategi formatu bat. Baliabide elektronikoak barne hartzen dituen fitxategiak mota edo formatu berekoak dira (esaterako, denak .jpg; denak .tiff; denak .txt; denak .wav; denak .mpg; eta abar).
m	Fitxategi formatu anitzak. Baliabide elektronikoak barne hartzen dituen fitxategiek bi formatu ezberdin dituzte, gutxienez (esaterako, .jpg eta .tiff; .tiff eta .txt; .sgml eta .wav; eta abar). (Lehenetsita)
u	Ezezaguna. Ez ditugu ezagutzen baliabide elektronikoak barne hartzen dituen formatuak.

10 - Kalitate-kontrolaren adierazleak

 	Ez da erabiltzen.
----------	--------------------------

12 – Konpresio-maila

 	Ez da erabiltzen.
----------	--------------------------

13 - Birformateatzearen kalitatea

 	Ez da erabiltzen.
----------	--------------------------

T007 eremuan lehenetsita agertzen diren balioak hauei aplikatu dakizkieke: Baliabide elektronikoa, disko optikoa, polikromoa, 12 cm, soinuarekin, fitxategi formatu anitzak.

T007		Deskribapen fisikoaren eremu finkoa Baliabide elektronikoa	
Material-mota	c	Materialaren izendapen espezifikoa	o
Kolorea	c	Neurriak	g
Soinua	a	Irudiaren kolore sakontasuna	
Fitxategiaren formatuak	m	Kalitate kontrolaren adierazleak	
Aurrekaria/Iturria		Konpresio-maila	
Birformateatzearen kalitatea			

Beste euskarri batzuk katalogatzen ari bagara, beste aukera batzuk erabili beharko ditugu.

T008 LUZERA FINKOKO INFORMAZIO-KODEAK – OROKORRA + ORDENAGAILU-FITXATEGIAK (EE)

Eremu horrek karaktereen 40 posizio (00-39) hartzen ditu, eta erregistro osoari buruzko informazio kodifikatua eta katalogatu beharreko dokumentuaren bibliografia-ezaugarri bereziak jasotzen dira bertan. Kodifikatutako datu horiek erabilgarri suerta daitezke informazioa errekupeatu eta kudeatzeko.

Eremu horrek ez du, ez adierazlerik, ez azpieremu-koderik. Elementuen posizioak berak definitzen ditu elementuok. Kode alfabetikoak minuskulaz idatziko dira.

OSO GARRANTZITSUA DA EREMUA ZUZEN BETETZEA. IZAN ERE, KODIFIKATUTAKO DATUOK ERABILGARRIAK IZAN DAITEZKE ERREGISTROAK BERRESKURATZEKO ETA HELBURU ADMINISTRATIBOETARAKO.

POSIZIOAK

00-05 - Fitxategiko sarrera-eguna

Zenbakizko sei karaktere, Sistemak sortzen dituenak, eta erregistroa sortu zen data zehazten dute, uuhhee ereduarekin (adb.: 160912, 2016ko irailaren 12a).

Erregistro bat gehitzen den edota datu-base batetik erregistro bat lortzen den bakoitzean, sistemak alta ematen den data esleituko du automatikoki.

Aldaketen data eta ordua T005 eremuan (azken transakzioaren data eta ordua) erregistratuta geratuko da automatikoki. Eremua ezin da editatu, Update formatuan baino ez da bistaritzen.

06 – Data-mota / argitalpenaren egoera

(Ik. Inprimaki modernoak)

Letra bakarreko kode alfabetikoa da, eta adierazten du zein kategoriatakoa den **T008/07-10eko data** (lehenengo data) eta **T008/11-14koa** (bigarren data).

Kode erabilienak **s** (bakarra) edo **m** (hainbat) dira.

Erregistro gehienen kasuan, informazio hori T260 eremuan (argitalpena, banaketa, eta abar) ageri den datatik lortzen da.

m	Hasiera/amaiera-data. Zenbait liburukiz osatutako idazlan bat zer urte-tartetan argitaratu den.
q	Zalantzazko data. Ez da ezagutzen dokumentuaren data zehatza.
r	Berrinprimatze-data. Erreproduktzio- edo berrargitalpen-data jasotzen du. Erreproduktzio faksimiletarako erabiltzen da.
s	Data bakarra. Banaketa-, argitalpen-, igorpen- edo gauzatze-data bakarra jasotzen du, zehatza zein probablea. Kasu horretan ez da "Bigarren data" beteko.

07-10 – Lehenengo data

(Ik. Inprimaki modernoak)

Lau zifraz adierazten da; bakarren bat ezezaguna bada, haren ordeztu jar daiteke. Lau hutsuneak bete behar dira beti.

Lehenengo data argitalpen-data da, edo zenbait liburukiko argitalpenen kasuan, argitalpenaren hasiera. Data hori T260 eremuaren \$c azpieroarekin lotuta dago; bi datak ez badatoz bat, programak gorri markatuko ditu.

Argitalpen-urte zehatza ezagutzen ez bada, gertuen dagoen hamarkada edo mendea adieraziko da, eta karaktere ezezagun bakoitza **u** letrarekin ordeztuko da.

06 posizioan (data-mota) **r** jarri bada, hemen erreproduzio- edo berrargitalpen-data jarriko dugu.

1-9	<i>Dataren digituak</i>
u	<i>Data osoa edo zati bat ezezaguna da</i>

Hori da programak kontuan hartzen duen data, ARDAren arabera bilaketa egiteko.

11-14 – Bigarren data

(Ik. Inprimaki modernoak)

15-17 – Lana argitaratu, ekoitzi edo burutu den lekua

Bi edo hiru karaktereko kode alfabetikoa da, eta idazlana non argitaratu, ekoitzi edo burutu den adierazten du. Kodearen iturria *Marc Code List for Countries* da.

AbsysNet-ek “**sp**” du lehenetsita, Espainiari dagokiona. Aldatzeko, F5 funtzio-tekla edo laguntza-ikonoa sakatuz, herrialde bakoitzari dagokion kodeak lor daitezke.

Bi karaktereko kodeak ezkerrean justifikatzen dira, eta erabili gabeko posizioa zuriune batez betetzen da (#).

Informazio hori da programak kontuan hartzen duen data, HERRIALDEEN arabera bilaketa egiteko.

22 – Jasotzailea

Letra bakarraz osatutako kode alfabetikoa da, eta dokumentua zein publiko motari zuzentzen zaion adierazten du. Hezkuntza-material elektronikoetarako erabiltzen da batez ere. Esan daitekeenean dokumentu baten edukia hainbat hartzaile motari zuzenduta dagoela, hartzaile nagusiari dagokion kodea erabiliko da.

#	<i>Ezezaguna edo zehaztugabea.</i> Materialaren hartzailea ezezaguna da edo ez da zehaztu. Material grafiko original eta historikoa sailkatzeko erabiltzen da.
---	---

	(Lehenetsita)
a	Eskolaurrea (0-5 urte)
b	Lehen Hezkuntza (6-8 urte)
c	Aurre-nerabea (9-13 urte)
d	Nerabea (14-17 urte)
e	Helduak
f	Espezializatua. Dokumentua publiko zehatz bati zuzenduta dago, eta bere izaerak interes gutxi argitalpen bihurtzen du beste publiko batzuentzat. Hona hemen dokumentu mota honen adibide batzuk: 1) izaera teknikoa duten prestakuntza-filmak; 2) urritasun fisiko edo psikikoak dituzten hezkuntza helburu duten dokumentuak; eta 3) entzule multzo murriz bati zuzendutako dokumentuak, hala nola, erakunde bateko langileei.
g	Orokorra. Interes orokorreko dokumentua da eta ez dago publiko mota zehatz bati zuzenduta. Kode hori gainerako kodeek modu egokiagoan deskribatzen ez duten fikzio-lan gehienentzako erabiltzen da.
j	Gazteak. 0-15 urte arteko haur eta gazteei zuzenduta. Gazteen audientzia mota zehatz nahi ez denean erabiltzen da kode hori.
l	Ez da erabiltzen

Posizio horren informazioa T521 eremutik dator.

23 – Argitalpenaren forma

Letra bakarreko kode alfabetikoa da eta deskribatutako dokumentuaren forma zein den zehazten du.

#	Ezezaguna edo zehaztugabea.
o	On line. Software bat edo hardware bat komunikazio sare batera lortuz lortzen da sarbidea.
q	Sarbide zuzeneko elektronikoa. Zuzenean sar daitekeen grabaketa-euskarri batean gordea (esaterako, diskoa, zinta, playaway, flash memoria, disko gogor eramangarria eta abar). (Lehenetsia)
l	Ez da erabiltzen

26 - Ordenagailu-fitxategi mota

Letra bakarreko kode alfabetikoa, erregistro bibliografikoan deskribatzen den ordenagailu-fitxategi mota adierazten duena. Ordenagailu-fitxategi mota espezifikoak testu gisa ere deskribatzen da T516 eremuan (ordenagailu-fitxategi edo datu-fitxategi motaren oharra).

a	Zenbakizko datuak. Batez ere zenbakiak edo zenbakiz osatutako
----------	--

	adierazpenak, hala nola ikasleen azterketen emaitzen inguruko informazio osoa daukaten erregistroak, futbol-talde baten inguruko estatistikei buruzko informazio osoa eta abar. Informazioa jatorrizko azterketetan edo estatistikoki erabili edo laburtu den informazioan oinarritu daiteke.
b	Ordenagailu-programa. Oinarrizko eragiketak egiteko aukera ematen duten eta eskatutako informazio eta mekanismoak identifikatzen dituzten argibideak. Kategoria honetan ordenagailu eta mikroordenagailuak sartzen dira. Ordenagailu-programa mota batzuk (esaterako, iturriak) posizio honetan identifikatzen dira, beste kode batzuen bidez. (Lehenetsita)
c	Informazio grafikoa. Beste fitxategi mota batzuekin batera manipulatu daitekeen informazio grafikoa, informazioari esanahia emateko eta interpretatzeko erabil daitezkeen eredu grafikoak sortzeko helburuarekin. Irudi formatuko dokumentuak ez daude barne.
d	Testua. Batez ere informazio alfabetikoa da (hitzak edo esaldiak), ordenagailuak prozesatu, sailkatu, manipulatu eta gerora berreskuratu dezakeen formatu kodifikatu batean. ASCII edo irudi bidez irudikatu daitekeen testu-dokumentu bat eratzeke xedea duen material linguistikoa hartzen du barnean. Erregistro bibliografiko indibidualizatuak eta erregistro bibliografiko bilduma bat hartzen ditu barnean. Atal honetan kodifikatzen diren dokumentuen izaera nagusia testuarena da, baina bilaketa-software bat ere badute.
e	Datu bibliografikoak. Erreferentzia bibliografikoak dituzten datuak. Liburutegien katalogoan edo datu-base bibliografikoen inguruko informazioa dago hemen. Modu egituratu edo ez egituratuan aurkez daitezke datuak. Bilaketa-softwarea bertan egon daiteke, baina erregistroaren helburua gehiago da datu bibliografikoen edukia edo datu-basearen deskribapena, lineako sistema edo zerbitzuarena baino.
f	Letra-tipoa. Ordenagailu bati letra-tipoak sortzeko baliogarri zaion informazioa.
g	Jokoa. Jolas edo heziketa erabilerarako. Normalean, jokoak testua eta softwarea dira. Hemen bideo-jokoak sartzen dira.
h	Soinua Adierazi ordenagailu-fitxategiak soinuak dituela, ordenagailu bidez erreproduzitzeko (mp3, wma, wav eta abar).
i	Multimedia interaktiboa. Hainbat baliabide motaren nabigazioa eta manipulazioa egiteko aukera ematen du (esaterako, audio, bideo eta abar). Orokorrean, multimedia interaktiboak kontrol maila handia ematen dio erabiltzaileari eta sarritan ia elkarriketa mailakoa den interakzio bat eman daiteke, ordenagailuarekin eta datuekin. (Esaterako, elkarri eragiteko aukera ematen duten hizkuntza ikastaroak dituzten ordenagailu-fitxategiak).
j	Lineako zerbitzu edo sistema. Informazio ez bibliografikoa eduki dezake. Lineako sistema edo zerbitzu batek sistemaren bidez erabiltzailearekin elkar eragiteko aukera eman dezake. Erregistroaren helburua sistema propioa deskribatzea bada, datu-baseen edukia bere gain edukita, hemen

	kodifikatuko da. Lineako fitxategi bat bada eta sistema deskribapenarekiko bigarren mailako bada, beste kategoria baten barruan sartzen da. Lineako sistema edo zerbitzuen adibide batzuk honakoak dira: liburutegien lineako sistemak (hainbat datu-base dituztenak), FTP lekuak, albiste-ohol elektronikoak, sareko informazio zentroak.
m	Konbinazioa. Aipatutako fitxategi mota bi edo gehiago konbinatzea.
u	Ezezaguna
z	Bestelakoa. Definitutako kode bat ere ez da egokia.
 	Ez da erabiltzen

28 – Argitalpen ofiziala

Letra bakarreko kode alfabetikoa da, eta dokumentua korporazio ofizial batek argitaratu duen ala harentzat propio argitaratu den adierazten du.

“o” kodea erabiliko dugu, gehiago zehaztu gabe.

Erakundeak ez du zertan izan sarrera nagusi edo bigarren mailako sarrera, baina argitaratzaile gisa agertu beharko du edota dokumentuaren argitalpenaren erantzule izan.

#	Ez da argitalpen ofiziala (Lehenetsita)
o	Argitalpen ofiziala – zehaztugabeko maila.

35-37 – Hizkuntza

Hiru karaktereko kode alfabetikoa da eta dokumentuaren hizkuntza adierazten du. *Kodearen iturria MARC Code list languages* da. Kodea aukeratzeko orduan, dokumentuan nagusi den hizkuntza hartzen da kontuan.

Posizio horietatik hartzen da lineako katalogoan “**HIZK**” bilaketa egiteko informazioa.

Ordenagailu-fitxategietarako, datuei edo erabiltzaile-interfazeari lotutako hizkuntza (esaterako, testuaren bisualizazioa, ahots-irteera) T008/35-37 kodeak zehaztutakoa da, ez programazio hizkuntza. (Erabiltzaile-interfazearen edo datuen hizkuntzan ez beste batean dagoen atxikitako dokumentazioa T041 eremu batean kodifikatzen da).

Hizkuntza batean baino gehiagotan dauden idazlanak:

- Hizkuntza 2 edo gehiagoko lanetan (gehienez ere 6) hizkuntza nagusiaren kodea jarriko da, eta nagusitzen denik ez badago, lehenengoarena.
- «mul» kodea soilik 6 hizkuntzatik gorako lanetarako erabiliko da.

Gainera, T041 etiketarekin (*Hizkuntza Kodea*) eta T546 hizkuntza-oharrarekin gordeko dira.

F5 funtzio-teklaren edo laguntza-ikonoaren bidez  hizkuntzen kodeak kontsultatu eta atzeman ditzakegu. Sistemak lehenetsita dakar gaztelaniari dagokion “**spa**” kodea.

38 – Aldatutako erregistroa

Karaktere bakarreko kodea da eta bibliografia-erregistro batean jasotako zeinahi daturen ondorioz katalogatuta dagoen dokumentuko informazioan aldaketarik eragin den adierazten du. Hutsik utziko da (#).

39 – Katalogazio-iturria

Letra bakarreko kodea da, eta erregistroaren jatorrizko katalogazioaren iturria adierazten du. Geure kasuan, katalogazio partekatuko programa dugunez, BETI **c kodea** idatziko dugu.

Katalogazio-iturria **T040** eremuaren **\$a** azpieremuan ere zehaztuko da, horretarako, Liburutegi Zerbitzuak ezarritako kodeak erabiliz (ikus **T040** eremua).

c	Katalogazio kooperatiboko programa. Erregistroaren sortzailea katalogazio kooperatiboko programa bateko kidea da. (Lehenetsita)
----------	--

Adibidea:

Katalogazio-iturria: **c**

T040 ## \$aB0116 \$bbaq \$cELS

Getxoko Liburutegiak euskaraz katalogatutako erregistroa, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak ezarritako prozeduraren arabera balioztatua

T008 Informazio-kodeak - Ordenadore-fitxategiak	
Sarrera-eguna	110408
Lehenengo data	2006
Argitalpenaren herrialdea	sp
Ordenadore-fitxategiaren mota	g
Hizkuntza	spa
Katalogazioaren iturriak	c
	g
	spa
Data-mota/argitalpenaren egoera	s
Bigarren data	
Jasotzailearen maila	j
Argitalpen ofiziala	
Erregistro aldatua	
	c

T017 LEGE-GORDAILUAREN ZENBAKIA (E)

Agentzia bakoitzak esleitzen duen lege-gordailuaren zenbakia jasotzen du, eta nahitaez bete beharko da lege-gordailuaren eta euskal bibliografiaren kasuan.

Adierazleak

Lehena **# Zehaztugabea**

**Bigarren
a** **# Copyright zenbakia edo lege gordailuaren zenbakia**
8 Ez du lotura bidez bistaratzekorik sortzen.

Azpieremuko kodeak

\$a **Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia (E)**

\$z **Copyright edo lege gordailuaren zenbakia ezeztatua/baliogabea (E)**

Funtsezko elementua da eta behar hainbat aldiz bete behar da.

Lotura bidez bistaratzekoa

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez hitzekoa idaztea, programak automatikoki sortuko duelako dagokion katalogazio-hizkuntzan, betiere **T040** eremuko **\$b** behar bezala betetzen bada.

Gaztelania

Euskara

D.L.

L.G.

(Ik. Inprimaki modernoak)

\$a – Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia

Copyright edo lege-gordailuaren erregistro-zenbakia.

\$a – Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia ezeztatua/baliogabea

Adibideak:

T017 ## \$aM 24689-2002

T017 ## \$aSS 382-2000 (1. diskoa)

T017 ## \$aM 46758-2004 (disco 1)

T020 LIBURUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA (ISBN) (E)

Eremu horrek *Liburuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua* (ISBN) jasotzen du. Dokumentuan ISBN zenbakia agertzen ez bada edo zenbaketa okerra bada, katalogatzailea zenbaki zuzena aurkitzen saiatuko da.

Adierazleak

Lehena #
Zehaztugabea

Bigarren #
a *Zehaztugabea*

Azpieremuko kodeak

\$a *Liburuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (EE)*

\$z *ISBN ezeztatua edo baliogabea (E)*

Lotura bidez bistaratzekoa

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez hitzekoa idaztea, programak automatikoki sortuko duelako dagokion katalogazio-hizkuntzan, betiere **T040** eremuko **\$b** behar bezala betetzen bada.

Gaztelania

ISBN

Euskara

ISBN

(Ik. Inprimaki modernoak)

\$a – Liburuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua

ISBN balioduna jasotzen du, bai eta edozein informazio gehigarri ere, parentesi artean.

\$z – ISBN ezeztatua edo baliogabea

ISBN ezeztatua edo baliogabea jasotzen du, bai eta edozein informazio gehigarri ere, parentesi artean.

Adibideak:

T020 ## \$a84-08-46854-5 (o.c.)

T020 ## \$a978-84-96288-93-5 (CD 4)

T024 BESTE IDENTIFIKATZAILE NORMALIZATU BATZUK (E)

Beste eremu batean idatzi ezin daitekeen zenbaki normalizatua edota dokumentuan argitaratutako kodea. Zenbaki normalizatu edo kode mota lehen adierazlearen bitartez edo \$2 azpieremuan identifika daiteke.

AOIZ (*Argitalpen Ofizialen Identifikazio Zenbakia*) sartzeko erabiliko dugu.

Adierazleak

Lehena	7 \$2 azpieremuan zehaztutako iturria
	8 Zehaztugabea
Bigarrena	# Ez dago informaziorik

Azpieremu-kodeak

\$a	Zenbaki normalizatua edo kodea (EE)
\$z	Zenbaki normalizatua edo kode ezeztatua/baliogabea (EE)
\$2	Zenbaki edo kodearen iturria (EE)

\$a – Zenbaki normalizatua edo kodea

\$2 - Zenbaki edo kodearen iturria

Lehenengo adierazlearen balioa 7 denean baino ez da erabiltzen (\$2 azpieremuan zehaztutako iturria). Kodea «*Standard Identifier Source Codes*» delakotik hartzen da.

Adibidea:

MARC bistaratzea:

T024 7# \$a207-08-062-X \$2Nipo

ISBD bistaratzea:

NIPO: 207-08-062-X

Lotura bidez bistartzekoa

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, **T040** eremuko \$b behar bezala betetzen bada, betiere. **Lehenengo adierazlearen balioak eta \$2** azpieremuko edukiak definitzen dute bistaratzea.

Gaztelania

NIPO

Euskara

NIPO

T035 SISTEMAREN KONTROL-ZENBAKIA (E)

Jatorrizko sistemaren kontrol-zenbakia jasotzen du, katalogoen fusioaren ostean migratutako erregistroetarako.

Era beran, OCLC zenbakia jasotzen du, WorldCat-entzat beharrezkoa dena.

Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

Adibidea:

```
..T035:  
  < »«a»(OCoLC)863171026  
..T035:  
  < »«a»B0600-149105  
..T035:  
  < »«a»G0300-30163
```

T040 KATALOGAZIO-ITURRIA (EE)

Jatorrizko bibliografia-erregistroa sortu, MARC eduki-adierazleak esleitu eta erregistroa transkribatu edo aldatu zuen erakundearen izena edo MARC kodea.

Geure kasuan, Liburutegi Zerbitzuak zentro bakoitzarentzat ezarritako kodeak erabiliko dira.

(Ik. Inprimaki modernoak)

Adierazleak

Lehena **#**
 Zehaztugabea

Bigarrena **#**
 Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

\$a **Jatorrizko katalogazio-zentroa (EE)**

\$b **Katalogazio-hizkuntza (EE)**

\$c **Zentro transkribatzailea (EE)**

\$d **Zentro aldatzailea (E)**

\$a, \$b eta \$c azpieremuak bete behar dira; bestela, programak gorriz markatuko ditu.

Azpieremu bakoitzak aurrez zehaztutako katalogazio-taula bat du; “katalogatzeko laguntza” botoia sakatuz gero, erabil ditzakegun aukerak bakarrik ikusiko ditugu 

T041 HIZKUNTZA-KODEA (EE)

Dokumentuarekin lotutako MARC hizkuntza-kodeak jasotzen ditu, erregistroaren **008/35-37** eremuko hizkuntza-kodea nahikoa ez denean informazio guztia jakinarazteko.

Kode horien iturria arau hau da: ISO 639-1 – *Codes for the representation of names of languages*.

Adierazleak

	# Ez dago informaziorik
	0 Dokumentua ez da itzulpena eta ez du itzulpenik jasotzen. Atxikitako materiala ez da kontuan hartuko dokumentua itzulpena den ala ez erabakitzeko.
Lehena	1 Dokumentua itzulpena da edo itzulpen bat jasotzen du. Lana jatorrizko hizkuntzan argitaratuta dagoen kontuan hartu gabe erabiliko da. Edonola ere, itzulitako idazlanak ez badu jatorrizkoaren sarrera bera –adibidez, itzulpenaz gain egokitzea–, dokumentua ez da itzulpentzat hartuko eta lehenengo adierazlea 0 izango da.
Bigarrena	# Hizkuntzaren MARC kodea

Azpieremu-kodeak

- \$a Testuaren hizkuntza-kodea (E)**
- \$b Laburpenaren edo aurkibidearen hizkuntza-kodea (E)**
- \$h Jatorrizko hizkuntza-kodea (E)**

Ordenagailu-fitxategietan, T041 eremua erabiltzaile-interfaze edo/eta datuekin lotutako hizkuntza-kodeak kontsignatzeko erabiltzen da (esaterako, pantaila-bisualizazioak). Eremu hori ez da ordenagailu-lengoaiak kodifikatzeko erabiltzen (esaterako, COBOL), ezta karaktere kodeak ere (esaterako, ASCII). Ordenagailu-lengoaiei buruzko informazioa T538 eremuan kodifikatzen da (sistema-xehetasunen oharra).

Eremua honako baldintza hauetakoren bat edo batzuk betetzen direnean erabiliko da:

- Dokumentua hizkuntza batean baino gehiagotan badago; hizkuntzetako bat zeinu-hizkuntza izan daiteke.
- Dokumentua bera itzulpena bada edota itzulpenen bat badauka.
- Aurkibideen, laburpenen edo atxikitako materialen hizkuntza ez bada dokumentu nagusiaren hizkuntza bera.
- Edukien aurkibidearen hizkuntza ez bada dokumentu nagusiaren hizkuntza bera.

Hizkuntza-kode guztiak karaktere alfabetikoz jarriko dira, minuskulaz.

ETIKETA HORI BETETZEN DEN GUZTIETAN, OHAR BATEAN (T546, T594...) ADIERAZI BEHARKO DA.

\$a - Testuaren hizkuntza-kodea

\$a azpieremuko lehenengo hizkuntza-kodea **T008/35-37** eremuan ere kodifikatu behar da, non eta **T008/35-37** eremuak zuriunerik (###) ez duen.

Idazlan eleaniztunetan, testuaren hizkuntzen kodeak testuan duten nabarmentasunaren arabera kodifikatzen dira. Hizkuntzen artean nabarmentzen denik ez badago, kodeak hurrenkera alfabetikoz kodifikatuko dira. Arrazoi praktikoengatik, sei hizkuntza baino gehiago baldin badaude, izenburuaren kodea (edo lehenengo izenburuarena, bat baino gehiago badago) eta **mul** kodea (hizkuntza anitz) kodifikatuko dira.

\$b - Laburpenaren edo aurkibidearen hizkuntza-kodea

Aurkibideen hizkuntza-kodeak jasotzen ditu, betiere, testuan erabilitako bera ez bada. Hurrenkera alfabetikoan kodifikatuko dira.

\$h- Jatorrizko hizkuntza-kodea

Idazlanaren jatorrizko hizkuntzaren eta/edo tarteko itzulpenen hizkuntza-kodeak. Tarteko itzulpenen kodeak jatorrizkoaren kodeen aurretik kodifikatzen dira.

Adibidea:

T008/35-37 eng

T041 0# \$aeng \$bfre \$bger \$bspa

(Testua ingelesez dago eta laburpenak ditu frantsesez, alemanez eta espainolez)

T008/35-37 baq

T041 1# \$abaq \$aspa

(Testua euskaraz eta espainolez dago)

T041 1# \$aeng \$hfre

(Testua ingelesez dago eta frantsesaren itzulpena da)

Azpieremu bakoitzak aurrez zehaztutako katalogazio-taula bat du; “katalogatzeko laguntza” botoia sakatuz gero, erabil ditzakegun aukerak bakarrik ikusiko ditugu 

T080 SAILKAPEN HAMARTAR UNIBERTSALEKO ZENBAKIA (E)

Eremu honetan Sailkapen Hamartar Unibertsaleko (SHU) notazio bat jasotzen da. SHUren 2016ko edizio laburtua erabili beharko da, sailkapen-irizpideak homogeneizatzeko.

Adierazleak

Lehena	0 Osoa. Zenbakia edizio oso batetik hartzen da.
	1 Laburtua. Zenbakia edizio laburtu batetik hartzen da. (Lehenetsita)
Bigarrena	# Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

\$a Sailkapen Hamartar Unibertsalaren zenbakia (EE)

\$a - Sailkapen Hamartar Unibertsalaren Zenbakia

Ez da aldatuko notazio erlazionatuen hurrenkera.

Adibidea:

T080 1# \$a94(460.15)

T080 1# \$a331.108.62:669.1

(Ez: \$a331.108.62:669.1
\$a669.1:331.108.62)

Notazioaren ordenaren inguruko zalantzak izanez gero, kontsultatu SHUren «Sarrera» ataleko 3. irudia.

Notazioetan letrak daudenean (hirien, idazleen izenak, etab.) zuriunerik gabe transkribatuko dira, zenbakien ostean.

Adibidea:

T080 1# \$a811.361'282(460.154Eibar)

(Eta ez:
\$a811.361'282(460.154 Eibar)

Ordenagailuz irakurtzeko moduko dokumentuen kasuan, forma-osagarri espezifikoa (0.034) erabiliko dugu beti.

Adibidea:

T080 1# \$a502.4(0.034)

T080 1# \$a94(460.15)(0.034)

EAE, Nafarroa eta Iparraldea barne hartzen dituen mugaketa geografikorako, leku-osagarri haxe erabiliko dugu:

Adibidea:

Euskal-Herria

(460.15/16+447.9)

Ondoren, **T655 kodean erabilitako** ordenagailu-fitxategien generoen Sailkapen Hamartar Unibertsala barne hartu da. 1. Eranskinean mota bakoitzeko deskribapen bat dago:

<i>Archivos de ordenador infantiles / Haurrentzako ordenagailuko fitxategiak</i>	087.5:
<i>Bases de datos / Datu-baseak</i>	004.65(0.034)
<i>Cursos multimedia / Multimedia ikastaroak</i>	<i>la CDU del tema seguida de</i> (0.034)
<i>Diseño gráfico / Diseinu grafikoa</i>	004.924(0.034)
<i>Enciclopedias multimedia / Multimedia entziklopediak</i>	(031)(0.034)
<i>Hojas de cálculo / Kalkulu-orriak</i>	004.67(0.034)
<i>Imagen y sonido / Irudia eta soinua</i>	004.4'27(0.034)
<i>Internet / Internet</i>	004.738.5(0.034)
<i>Juegos de ordenador educativos / Ordenagailuko joko hezigarriak</i>	793.7:37(0.034)
<i>Juegos de ordenador / Ordenagailuko jokoak</i>	793.7(0.034)
<i>Ofimática / Bulegotika</i>	004.91(0.034)
<i>Procesadores de texto / Testu-tratamenduko programak</i>	004.912(0.034)
<i>Programas educativos / Programa hezigarriak:</i>	<i>la CDU del tema seguida de</i> (0.034)
<i>Programas / Programak</i>	004.42(0.034)
<i>Seguridad informática / Segurtasun informatikoa</i>	004.491(0.034)
<i>Sistemas operativos / Sistema eragileak</i>	004.451(0.034)
<i>Utilidades / Utilitateak</i>	004.9(0.034)

Aurretik aipatutako ohar batean ere sartu ezin daitezkeen fitxategien kasuan, landutako gaiaren inguruko sailkapena eta horren ondoren forma-osagarria erabiliko da (0.034).

T084 BESTE SAILKAPEN ZENBAKI BAT (E)

Gainerako eremuek kontuan hartzen ez duten eskema batetik hartutako sailkapen-zenbakia.

Adierazleak

Lehena	#
	<i>Zehaztugabea</i>
Bigarrena	#
	<i>Zehaztugabea</i>

Azpieremuko kodeak

\$a *Sailkapen-zenbakia (E)*

\$a – Sailkapen-zenbakia

Eremu horretan liburutegi batzuen sailkapen bereziak jasoko ditugu, esaterako:

- HABEren sailkapen berezia, material didaktiko eta hizkuntzalaritza aplikaturako.

Adibidea:

T084 ## \$aA4baq

T084 ## \$aZbaq3.5

T100 SARRERA NAGUSIA – PERTSONA IZENA (EE)

Erregistroa autore pertsonalaren izenaz hasteko forma Katalogazio-arauen 11. kapituluan zehaztutakoa izango da.

(Ik. Inprimaki modernoak) eta (Ik. Autoritateak)

T110 SARRERA NAGUSIA – ERAKUNDE KORPORATIBOAREN IZENA (EE)

Erregistroa entitatearen izenaz hasteko forma Katalogazio-arauen 11. kapituluan zehaztutakoa izango da.

(Ik. Inprimaki modernoak) eta (Ik. Autoritateak)

T111 SARRERA NAGUSIA – BILTZARRAREN IZENA (EE)

Erregistroa biltzarrarekin hasteko forma Katalogazio-arauen 11. kapituluan zehaztutakoa izango da.

(Ik. Inprimaki modernoak) eta (Ik. Autoritateak)

T130 SARRERA NAGUSIA – IZENBURU HAUTATUA (EE)

Bibliografia-erregistro batean, sarrera nagusi gisa erabilitako izenburu hautatua.

Ordenagailu-fitxategien izenburu normalizatuak daude hemen, dokumentuak ordenagailu-fitxategi hori soilik daukan kasuetan. Adobe Photoshop, Access eta bestelako programen kasua da.

Eremu hori autoritate bati lotuta dago

(Ik. Autoritateak)

Adierazleak

Lehena **0 – 9 Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereak.** Artikulu zehaztu edo zehaztugabe bati lotuta dauden izenburu baten hasierako karaktereen kopurua, zeinak indexatzeko eta alfabetizatze prozesuetan kontuan hartzen ez baitira (adb.: El, The, Der), eta zeinu diakritiko edota karaktere berezi guztiak (¿, ¡, [).

Bigarrena **# Zehaztugabea**

Autoritate elebidunen kasuan (euskaraz nahiz gaztelaniaz sortu daitezkeenak), katalogatzeko orduan, dokumentuaren katalogazio-hizkuntzari lotutako autoritatea aukeratuko da eremu horretan (T040 eremuan aukeratu zen hizkuntza bera izango da).

Adibidez:

T130 0# \$aAdobe Acrobat (Ordenagailu-fitxategia)

T130 0# \$aMicrosoft Office (Ordenagailu-fitxategia)

Autoritate elebiduna T903 eremuan adieraziko da (Sarrera nagusia - Izenburu hautatuaren izena (elebiduna)).

Adibideak:

T130 0# \$aAdobe Acrobat (Archivo de ordenador)

T903 0# \$aAdobe Acrobat (Ordenagailu-fitxategia)

T130 0# \$aMicrosoft Office (Archivo de ordenador)

T903 0# \$aAdobe Acrobat (Ordenagailu-fitxategia)

T245 IZENBURUAREN AIPUA (EE)

Ordenagailu-fitxategi baten izenburuari eta deskribapen bibliografikoaren erantzukizunaren aipuari buruzko oharra. Eremuan izenburua bera jasotzen da. Halaber, materialaren izendapen orokorra, izenburuaren gainerakoak, izenburuari buruzko informazio osagarria eta erantzukizunaren aipua ere jaso daitezke.

Adierazleak

Lehena	0 <i>Ez dago sarrera gehigarrik</i>
	1 <i>Sarrera gehigarria dago</i>
Bigarrena	0-9 <i>Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua</i>

Azpieremuko kodeak

\$a	<i>Izenburua (EE)</i>
\$b	<i>Izenburuaren gainerakoak (EE)</i>
\$c	<i>Erantzukizunaren aipua (EE)</i>
\$h	<i>Material-mota (EE)</i>
\$n	<i>Lanaren zati edo atalaren zenbakia (E)</i>
\$p	<i>Lanaren zati edo atalaren izena (E)</i>

\$a – Izenburua

(Ik. Inprimaki modernoak)

\$b Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

(Ik. Inprimaki modernoak)

Material mota

Material mota adierazten duen terminoa.

[**Archivo de ordenador**] edo [**ordenagailu-fitxategia**] terminoa erabiliko dugu, katalogazio hizkuntzaren arabera.

Gaztelania

Archivo de ordenador

Euskara

Ordenagailuko fitxategia

Azpieremu honek aurretiaz definitutako katalogazio-etaula bat dauka. «Katalogatzeko laguntza» botoiarekin, dauden aukera posible bakarrak ikusiko ditugu.



Izenburuaren beraren (\$a, \$n, \$p) ostean transkribatzen da beti, eta izenburuaren gainerakoan (\$b) aurretik doa. **Kasu horretan, \$b bat \$h baten ostean badoa, \$bren puntuazioa ez da aurretik jarriko (“:” “=” “;” \$b-ren ostean jarriko dira beti).**

ISBD kontsolidatuan ezartzen den bezalaxe, izendatzailea maiuskulaz hasiko da.

Adibideak:
T245 00 \$aFifa 17 [\$hArchivo de ordenador]
T245 04 \$aThe witcher. \$nIII, \$pWild hunt [\$hArchivo de ordenador]
T245 00 \$aSorginen kondaira [\$hOrdenagailuko fitxategia]
T245 10 \$aCalidoscopio [\$hArchivo de ordenador] \$b: explora colores, números, papeles : experimenta con el ordenador estimulando tu creatividad / \$c Cristina Làstrego y Francesco Testa

\$n – Idazlanaren zati baten edo atal baten zenbakia

(Ik. Inprimaki modernoak)

\$p – Idazlanaren zati baten edo atal baten izena

(Ik. Inprimaki modernoak)

\$c – Erantzukizunaren aipua

Lehenengo erantzukizunaren aipua edota beste azpieremuetan kodifikatzen ez den eremuaren gainerako informazioa.

Pertsona edota erakundeen izenak informazio-iturri nagusian ageri diren bezala transkribatuko dira. Barraren osteko lehenengo letra minuskulaz jarriko da, akats ortografikorik gertatzen ez bada.

Ordenagailu-fitxategi baten deskribapenean, erantzukizunaren aipuak honakoei egin diezaieke erreferentzia:

- Dokumentuan barne hartzen den egiteko zuzena duten idazleak, programatzaileak, ikerketa nagusiak, artista grafikoak, konpositoreak, animatzaileak eta abar (esaterako, testuaren egilea, editorea, konpiladorea, itzultzailea, ilustratzailea, musika konpositorea eta abar), edo zeharkakoa dutenak (esaterako, programa bat oinarritzen den obraren egilea);
- Dagoeneko egindako obra baten egokitzapena egiten dutenak, izan euskarri berean zein beste batzuetan;
- Fitxategiaren erredakzioan parte hartu duen edozeinen lana babesten duten erakundeak edo pertsonak.

Aurretik zerrendatutakoaz gain, ordenagailu-fitxategi baten erantzukizunaz ari garenean errealizatzaile eta diseinatzaileez aritu gaitezke, horien lanaren parte fitxategiaren sorkuntza edo errealizazioa baita. Baliabide baten edo baliabide mota konkretu baten

testuinguruan erantzukizun espezifikoak dutenak ere sartzen dira (esaterako, ikerketa-proiektu baten zuzendariak, bideo baten zuzendaria...).

Adibidea:

T245 10 \$aPropys [\$hArchivo de ordenador]\$b : sistema de recuperación para directorios /\$cPROINFO; diseño y programación, Mario Chao, Sahudy Montenegro

T245 10 \$aMicrosoft Internet Explorer [\$hArchivo de ordenador] /\$cMicrosoft Corporation

T245 10 \$aCVP [\$hArchivo de ordenador]\$b : programa centinela neutralizador de virus /\$cJosé I. Ariza Méndez, Miguel A. Méndez Gil

T246 IZENBURUAREN ALDAERAK (E)

Dokumentuaren zati ezberdinetan agertzen diren izenburuaren aldaerak, hura hobeto identifikatzen laguntzen dutenak.

Izenburu-aldaera horiek T246 eremuan jartzen dira baldin eta T245 eremuan aipatutako izenburuarekin alderatuta nabarmen desberdinak badira.

Ohar gisa bistaratzen/inprimatzen direnean, izenburu-aldaeren aurretik sarrerako termino edo esaldi bat azaldu ohi da, bigarren adierazlearen balioarekiko lotura bidez bistaratzen dena. Erregistro bibliografikoan dagokien hizkuntzan bistaratzen/inprimatzen dira, T040 eremuaren \$b azpieremuan zehaztutako katalogazio-hizkuntzan hain zuzen.

(Ik. Inprimaki modernoak)

Adierazleak

Lehena	1 Oharra, sarrera gehigarri bat dago (lehenetsita) 3 Ez dago oharrik, sarrera gehigarri bat dago
Bigarrena	# Ez da zehazten. Ez da izenburu-motari buruzko informaziorik ematen. - Izenburua (\$a) zenbakiz hasten denean edo @ zeinua daukanean - Izenburuak (\$a) akatsen bat daukanean - Izenburuan (+, x, &) zeinuak ageri direnean - Letraldatutako idazlanen gaztelaniazko eta euskarazko izenburuetarako. 0 Izenburu zatia. Honako kasu hauetan: - Izenburu alternatiboa (edo juntagailuz bereizia) (\$a) - Zatien edo atalen izenburuak (\$p) - (\$B) azpiizenburua \$a azpieremua inzialez osatuta dagoenean, eta \$b haren forma garatua denean. 1 Pareko izenburua. Izenburua beste hizkuntza batean. T246 bat erabiliko da idazlana idatzita dagoen hizkuntza bakoitzarentzat. (Lehenetsita) Gainera, behekoz gorako dokumentuen kasuan erabiliko da. 3 Beste izenburu bat. Dokumentuan agertzen den beste izenburu bat, bigarren adierazlearen ezein balioren bidez zehaztuta ez dagoena, esaterako, atarian ageri den beste izenburu bat. 4 Azaleko izenburua. Azala informazio-iturri nagusia ez denean. 5 Atari gehigarriko izenburua. Oro har, beste hizkuntza batean idatzitako izenburua da, iturri nagusi gisa erabilitako atariaren aurreko edo osteko atarian jasota dagoena. Era berean, behekoz gorako dokumentu elebakarretarako ere erabiliko da. 8 Bizkarreko izenburua. Argitaratzailearen izena, ez koadernatzailearena.

Azpieremuko kodeak

\$a Izenburu nagusia/ Izenburu laburtua (EE)

\$b Izenburuaren gainerakoak (EE)

\$n Lanaren zati edo atalaren zenbakia (E)

\$p Lanaren zati edo atalaren izena (E)

Lotura bidezko bistaratzea

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez hitzekoa idaztea, programak automatikoki sortuko duelako dagokion katalogazio-hizkuntzan, betiere **T040** eremuko **\$b** behar bezala betetzen bada.

2 adierazlea	Gaztelania	Euskara
2	Título distintivo	Izenburu bereizgarria:
3	Otro título:	Beste izenburu bat:
4	Título de la cubierta:	Azaleko izenburua:
5	Título de la portada adicional:	Atari gehigarriko izenburua:
6	Título de la cabecera:	Orriburuko izenburua:
7	“Titulillo”, título de margen:	Orri-ertzeko izenburua:
8	Título del lomo:	Bizkarreko izenburua:

Adibideak:

T245 10 \$a100 utilidades para Windows 95 y NT [**\$h**Archivo de ordenador]**\$b**: una selección de las mejores utilidades gratuitas y shareware para obtener el máximo partido a su ordenador

T246 1# \$aCien utilidades para Windows 95 y NT

T245 00 \$a3D Studio [**\$h**Archivo de ordenador]

T246 1# \$aTresD Studio

T250 EDIZIOAREN AIPUA (E)

Idazlan baten edizioari lotutako informazioa.

Edizioaren aipamenean “edizio” hitza agertzen da, normalean (edo beste hizkuntza bateko baliokidea) edo erlazionatutako termino bat, hala nola “bertsioa”, “maila”, “argitalpena” edo “eguneratzea”. Termino horiek edizio baten aipamena adierazi dezakete.

Edizio bat dago baliabidearen eduki intelektualean aldaketaren bat dagoenean, honakoak barne: gehikuntza eta ezabatzeak; aldaketak programazio-hizkuntzan; baliabidearen eraginkortasuna handitu edo hobetzeko aldaketak; programazio-hizkuntzaren edo sistema eragilearen aldaketak, baliabidea beste makina edo sistema eragile batzuekin bateragarria izateko helburuarekin.

Edizio berri bat osatzen **ez** duten desberdintasunen artean honakoak daude:

1. Euskarri fisikoaren aldaketa bat (esaterako, disko magnetiko batetik kasete batera), edo euskarri fisikoaren tamainarena (esaterako, 14 cm-ko disko magnetiko batetik, 9 cm-ko beste batera).
2. Desberdintasunak inprimagailuarekin erlazionatutako fitxategien formatuetan (esaterako, ASCII vs., PostScript).
3. Desberdintasunak sistemarekin erlazionatutako formatuetan (esaterako, IBM vs., Macintosh, eta abar.).

Edizio berri bat osatzen ez duten desberdintasunek ez dute erregistro bibliografiko aparte bat sortzea justifikatzen.

(Ik. Inprimaki modernoak)

Adierazleak

Lehena **# Zehaztugabea**

Bigarrena **# Zehaztugabea**

Azpieremuko kodeak

\$a **Edizioaren aipua (EE)**

\$b **Edizioaren aipuaren gainerakoa (EE).** Azpieremu horretan erantzukizunaren aipua jasoko da, eta pareko edizioaren aipua txertatu daiteke.

Adibideak:

T250 ## \$a Versión 6.1

T250 ## \$a Nivel 3.4

T256 ORDENAGAILU-FITXATEGIAREN EZAUGARRIAK (EE)

Katalogazio berrietan, eremu hori ez da erabiliko.

Informazio hori jasotzeko T516 kodea erabiliko da (Ordenagailu- edo datu-fitxategi mota).

T260 ARGITALPENEA, BANAKETA ETA ABAR (E)

Idazlan baten argitalpenari, inprimatzeari, banaketari, sorrerari edo ekoizpenari buruzko informazioa.

Eremu honetan editorearen edo ekoizlearen izena kontsignatuko da. Banatzailea derrigorrezkoa izango da soilik editorearen izenik ez badugu.

(Ik. Inprimaki modernoak)

Adierazleak

Lehena # Ezin da
aplikatu

Bigarrena #
Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

- \$a Argitaralekua, banaketa-lekua eta abar (E)
- \$b Argitaratzailearen izena, banatzailearen izena eta abar
- \$c Argitalpen-data, banaketa-data eta abar
- \$e Fabrikazio-lekua (E)
- \$f Fabrikatzailea (E)
- \$g Fabrikazio-data (E)

Adibideak:

T260 ## \$aDonostia : \$bIkastolen Elkartea, \$cL.G. 2000

T260 ## \$aMadrid : \$bMediasat, \$cD.L. 1998

T260 ## \$a[Madrid] : \$bPC World : \$bIDG Communications, \$c[1998?]

T300 DESKRIBAPEN FISIKOA (E)

Dokumentuaren deskribapen fisikoa; luzera, neurriak eta bestelako xehetasun fisiko batzuk barne, baita atxikitako materialaren deskribapena eta unitatearen tamaina eta mota ere.

Adierazleak

Lehena **# Zehaztugabea**

Bigarrena **# Zehaztugabea**

Azpieremuko kodeak

\$a **Tamaina (E)**

\$b **Beste ezaugarri fisiko batzuk (EE)**

\$c **Neurriak (E)**

\$e **Atxikitako materiala (EE)**

\$a – Tamaina

Eremuko lehenengo elementu horrek dokumentua osatzen duten gailu fisikoen kopuruari erreferentzia egiten dio. Zenbaki hori zenbaki arabiarrez adierazten da. Hona hemen erabil daitezkeen material-klaseen zerrenda:

<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
Disco (Blu-ray)	Disko (Blu-ray)
Disco (CD-DA)	Disko (CD-DA)
Disco (DVD-vídeo)	Disko (DVD-bideoa)
Disco (Wii)	Disko (Wii)
Disco compacto (CD-ROM)	Disko konpaktu (CD-ROM)
Disco compacto (DVD-ROM)	Disko konpaktu (DVD-ROM)
Disco compacto (UMD) ¹	Disko konpaktu (UMD)
Disco duro externo	Kanpoko disko gogor
Disco flexible	Disko malgu
Disquete	Diskete
Fichero	Fitxategi
Memoria USB	USB memoria
Tarjeta de memoria ²	Memoria txartel

¹ Universal Media Disc (*Disco para la PlayStation Portable*). En T538: Para PSP (PlayStation Portable)

² Para las tarjetas de Nintendo, PSVita, etc.

Adibideak:

T300 ## \$a1 disco (Wii)
T300 ## \$a3 USB memoria
T300 ## \$a8 disko konpaktu (CD-ROM)
T300 ## \$a2 disquetes

\$b – Beste ezaugarri fisiko batzuk

Deskribapen fisikoaren arloko bigarren deskribapena beste ezaugarri fisiko batzuk aipatzea da, euskarri fisikoaren dimentsioak alde batera utziz. Beste ezaugarri fisiko batzuen aipamena, beharrezkoa denean, ondoren adierazitako ordenan egingo da.

- **Soinuaren ezaugarriak.** Soinuaren presentzia *“son.”* laburdura edo *“soinuduna”* hitzaren bidez adieraziko da, katalogatzeko hizkuntzaren arabera.

Adibidea:

T300 ## \$a1 disco compacto (CD-ROM) : **\$bson.**

- **Kolorea.** Kolorea *“col.”* edo *“kol.”* laburdura bidez adieraziko da, katalogatzeko hizkuntzaren arabera. Ez da ezer adieraziko fitxategia zuri-beltzean edo kolore bakarrean ikusten bada.

Adibidea:

T300 ## \$a1 disko konpaktu (CD-ROM) : **\$bsoinuduna, kol.**

<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
son.	soinuduna
col.	kol.

\$c – Neurriak

Euskarri fisikoaren beraren neurri nagusiak adieraziko dira (esaterako, disko optiko baten diametroa), edozein ontzik eduki ditzakeen kanpoko dimentsioak edozein direla ere, disko optiko baten kutxa, esaterako.

Ontziaren neurriak kontsignatuko dira, elkarrekin gordetako dokumentu ezberdinen kasuan, eranskinekin edo eranskinik gabe.

Dokumentua beste neurri batzuetako euskarri fisikoz osatuta dagoenean, neurri txikienetik handienara emango dira, gidoiz banatuta.

Adibideak:

T300 ## \$a3 USB memoria : **\$bkol. ; \$c2 x 4 cm**
T300 ## \$a7 discos compactos (CD-ROM) : **\$bcol. ; \$c12 cm**

\$e - Atxikitako materiala

Ordenagailu-fitxategiarekin batera doan materiala zehazteko erabiliko da, betiere eskuliburuak, instalazio-jarraibideak edota bestelako material esanguratsuak badira. Transkribatzeko modua liburuzko materialen kasuan erabiltzen dena izango da.

Adbideak:

T300 ## \$a1 disko konpaktu (CD-ROM) : \$b soinuduna, kol. ; \$c 12 cm + \$e 1 liburuxka
--

T300 ## \$a1 disco compacto (CD-ROM): \$b col. ; \$c 12 cm + \$e 1 manual de usuario (40 p. ; il., 20 cm)

T300 ## \$a1 disco compacto (CD-ROM): \$b son., col. ; \$c 12 cm + \$e 1 folleto (10 p.)
--

T300 ##\$a2 discos compactos (DVD-ROM) + \$e 1 folleto (8 p. : il.)

T4XX SERIEAREN EREMUA

(Ik. Inprimaki modernoak)

T490 SERIEAREN AIPUA (E)

(Ik. Inprimaki modernoak)

T500 OHAR OROKORRA (E)

Informazio orokorra, zeinarentzat ez baita T5XX ohar-eremu espezifikorik zehaztu.

Adierazleak

Lehena # Zehaztugabea

Bigarrena # Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

\$a Ohar orokorra (EE)

\$a - Ohar orokorra

Ohar orokorreko T500 eremua erabiliko dugu honako kasu hauetan:

Adibideak:

T500 ## \$aEn la funda:

T500 ## \$aEn la etiqueta:

T500 ## \$aDatuak azaletik hartua

T500 ## \$aDatos tomados del conjunto de la publicación

T500 ## \$a1-4 jugadores

T500 ## \$aIncluye códigos QR para el acceso a los vídeos en línea

T500 ## \$aAtarian: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Herrizaingo Saila = Gobierno Vasco, Departamento de Educación, Universidades e Investigación, Departamento de Interior

Beste hizkuntzetan dauden ordenagailu-fitxategien kasuan:

T500 ## \$aDatos tomados de la ficha del distribuidor

T500 ## \$aBanatzailaren fitxatik hartutako datuak

T505 FORMATUDUN EDUKIARI BURUZKO OHARRA (E)

Idazlan independenteen izenburuak, dokumentu baten zatiak edota aurkibidea jaso ditzake. Era berean, erantzukizunaren aipua, liburukien zenbakiak eta bestelako sekuentzia-izendapenak ere barne hartu ditzake.

Adierazleak

Lehena

0 Eduki osoa. Dokumentuaren eduki osoa adierazten du. (Lehenetsita). LOTURA BIDEZ BISTARATZEKO SORTZEN DU:

1 Eduki osagabea. Edukia osatu gabe dago. Edukia osatu gabe dago, idazlanaren unitate fisiko guztiak argitaratu ez direlako edo katalogazio-agentziak eskuratu ez dituelako. LOTURA BIDEZ BISTARATZEKO SORTZEN DU:

:

2 Zati baten edukia Lan osoa izan arren haren zati aukeratu batzuk besterik ez direla deskribatzen adierazten du. LOTURA BIDEZ BISTARATZEKO SORTZEN DU:

:

8 Ez du lotura bidez bistaratzeorik sortzen

Bigarrena

Oinarrizkoa. Informazio guztia \$a azpieremuan jasotzen da.

0 Osoa. Edukiari buruzko oharrean zehaztutako zatien edukia osoa dela adierazten du. (Lehenetsita)

Azpieremu-kodeak

\$g Askotariko informazioa (E). Liburukia, zatia, orrialde-zenbaketa edota datak adieraziko dira, iturrian ageri diren bezala.

\$r Erantzukizunaren aipua (E)

\$t Izenburua (E)

Lotura bidezko bistaratzea

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez hitzekoa idaztea, programak automatikoki sortuko duelako dagokion katalogazio-hizkuntzan, betiere **T040** eremuko **\$b** behar bezala betetzen bada.

1 adierazlea	Gaztelania	Euskara
0	Contiene:	Edukia:
1	Contenido incompleto:	Eduki osagabea:
2	Contenido parcial:	Eduki partziala:

- Ohar hori kasu hauetan erabiliko da nagusiki:
 - Zenbait liburukitan dauden idazlanak, izenburu orokorra eta gai komuna dutenean.
 - Beste izenburu independente batzuk biltzen dituzten izenburu orokorra duten idazlanak.
- Sistemak automatikoki jasoko du agindutako puntuazioa, hortaz, ez da beharrezkoa idaztea.
- Zenbaketa dokumentuan ageri den bezala egingo da (tomoa, liburukia, faszikulua, etab.), argitalpenaren hizkuntzan, eta Katalogazio Arauetako VIII. gehigarrian ezarritako laburtzapenak erabilita. CC.

\$g - Askotariko informazioa

Idazlanaren liburukia edo zatia, argitalpenean ageri den bezala.

\$t - Izenburua

Eduki osoari buruzko oharrean erabilitako izenburua. Bilatu egin daitekeenez, ez da beharrezkoa izenburuaren bigarren mailako sarrerarik egitea (T740).

\$r – Erantzukizunaren aipua

Hiru baino gehiago ez direnean, autoreen bigarren mailako erregistroak aterako dira, euskal eremuko autoreak direnean izan ezik; kasu horretan guztien bigarren mailako erregistroak egingo dira.

Adibideak:

T245 00 \$aCiencias naturales [\$hArchivo de ordenador]

T505 00 \$tAnatomía, Astronomía, Biología, Botánica, Ecología, Geología y Zoología

T245 00 \$aEspecial juegos [\$hArchivo de ordenador]

T505 00 \$tJuegos (Expandable, Silver, Shogo: mobile armor divison, Age of empires, Get medieval, Monster turck madness 2, Starshot, FIFA 99, Superbike world championship, Pinball Arcade) **\$t**Shareware : recopilación de las últimas novedades para Windows 9x /NT e Internet **\$t**Linux : Kernel 2.2.9 **\$t**Utilidades HP-48 : mando a distancia **\$t**Índices PC World 95 hasta abril de 1999 **\$t**Soluciones PC **\$t**Acceso AddressNet

T245 00 \$aHablemos inglés [**\$h**Archivo de ordenador] **\$b**: English for native spanish speakers

T505 00 \$tManual de trabajo **\$t**Guía del usuario

T245 00 \$aHistoria universal del arte [**\$h**Archivo de ordenador]

T505 00 \$gt.1 \$tAntiguas civilizaciones : arte primitivo **\$gt.2 \$t**Arte primitivo **\$gt.3 \$t**Románico **\$gt.4 \$t**Gótico **\$gt.5 \$t**Renacimiento **\$gt.6 \$t**Barroco **\$gt.7 \$t**Neoclásico

T516 - ORDENAGAILU- EDO DATU-FITXATEGI MOTARI BURUZKO OHARRA (E)

Eremu honek ordenagailu-fitxategiaren ezaugarri den informazioa dauka, informazioaren eta aurkezteko moduaren arabera.

Adierazleak

Lehena # *Fitxategi mota* (Lehenetsia)
8 Ez du lotura bidez bistaratzekorik sortzen

Bigarrena # *Zehaztugabea*

Azpieremuko kodeak

\$a *Ordenagailuko edo datuetako fitxategi-motari buruzko oharra (EE)*

T008 etikaren 26 posizioa bete behar da, Ordenagailu-fitxategi mota

Adibidea:

T008 posición 26 i

T245 10 \$aCaravaggio [**\$h**Archivo de ordenador] **\$b**: un recorrido interactivo por su vida y su obra

T300 ## \$a1 disco compacto (CD-ROM) : **\$b** son., col. ; **\$c** 12 cm

T516 ## \$aMultimedia interactivo

\$a azpieremuak aurrez definitutako katalogazio-taula bat du. "Katalogatzeko laguntza" botoia sakatuta, aukera posibleak ikusiko ditugu 

absysNET Katalogoen taulak		
http://www.katalogoak.euskadi.net/cgi-bin_q81a/abnetcl/X8242/IDbc12a076/NT66?ACC=2120&TB=1100&ACTIVE=&SUBFLD=a		
Kodea	Azalpena	Hautazko deskripzioa
Datos numéricos	Archivos de ordenador	Ordenagailuko fitxategiak
Fuente	Archivos de ordenador	Ordenagailuko fitxategiak
Información gráfica	Archivos de ordenador	Ordenagailuko fitxategiak
Informazio grafikoa	Archivos de ordenador	Ordenagailuko fitxategiak
Jokoa	Archivos de ordenador	Ordenagailuko fitxategiak
Juego	Archivos de ordenador	Ordenagailuko fitxategiak
Letra tipoa	Archivos de ordenador	Ordenagailuko fitxategiak
Multimedia interactivo	Archivos de ordenador	Ordenagailuko fitxategiak
Multimedia interaktiboa	Archivos de ordenador	Ordenagailuko fitxategiak
Ordenagailu programa	Archivos de ordenador	Ordenagailuko fitxategiak
Programa de ordenador	Archivos de ordenador	Ordenagailuko fitxategiak

Onartu Ezeztatu

Ordenagailu-fitxategiak katalogatzeko prozedura-eskuliburua

Aldaketa-data:2017ko martxoa

Or.: 48/96

<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
Datos numéricos	Zenbakizko datuak
Programa de ordenador	Ordenagailu programa
Información gráfica	Informazio grafikoa
Fuente	Letra tipoa
Juego	Jokoa
Sonido	Soinua
Multimedia interactivo	Multimedia interaktiboa

T521 JASOTZAILEARI BURUZKO OHARRA (E)

Informazio horrek deskribatutako dokumentuaren jasotzaile espezifikoak edota haren edukia egokitzen jotzen den maila intelektuala identifikatzen ditu. Interes- eta motibazio-mailak edota ikaskuntza-ezaugarri bereziak (hizkuntzak ikasteko idazlanak) adierazten ditu. Informazio hori modu kodifikatuan ere adierazten da, T008/22 eremuan (Hartzaileak).

Adierazleak

Lehena	# <i>Hartzailea</i>
	0 <i>Irakurmen maila</i>
	1 <i>Adina</i>
	2 <i>Ikasturtea</i>
	3 <i>Hartzailearen ezaugarri bereziak</i>
	4 <i>Interes- edo motibazio-maila</i>
	8 <i>Ez du lotura bidez bistaratzekorik sortzen.</i> (Lehenetsita)
Bigarrena	# <i>Zehaztugabea</i>

Azpieremuko kodeak

\$a *Jasotzaileari buruzko oharra (E)*

Lotura bidez bistaratzekoa

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez hitzekoa idaztea, programak automatikoki sortuko duelako dagokion katalogazio-hizkuntzan, betiere **T040** eremuko **\$b** behar bezala betetzen bada.

1 adierazlea	Castellano	Euskera
#	Destinatario:	Jasotzailea:
0	Nivel de lectura:	Irakurmen maila:
1	Edad:	Adina:
2	Curso:	Ikasturtea:
3	Características especiales del destinatario:	Jasotzailearen ezaugarri bereziak:
4	Nivel de interés o motivación:	Interes edo motibazio maila:

§a - Jasotzaileari buruzko oharra

*Entretenimendurako Software Banatzaile eta Editoreen Espainiako Elkarteak (aDeSe)*³ erabiltzen duen sailkapena egingo dugu, PEGI delakoan (Pan European Game Information = Jokoei buruzko Europa mailako informazioa).

Más de 3 años	3 urtetik aurrera	
Más de 7 años	7 urtetik aurrera	
Más de 12 años	12 urtetik aurrera	
Más de 16 años	16 urtetik aurrera	
Más de 18 años	18 urtetik aurrera	

Sailkapen horri honako izendapenak gehitu diezazkiokegu:

<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
Para todos los públicos	Adin guztientzat

Adibideak:
T521 ## §a Más de 3 años
T521 ## §a Más de 18 años

³ <http://www.aevi.org.es/documentacion/el-codigo-pegil/>

T530 ESKURAGARRI DAUDEN BESTELAKO EUSKARRI FISIKOEI BURUZKO OHARRA (E)

Deskribatutako dokumentua eskuragarri dagoen beste euskarri fisiko bati buruzko informazioa. Hainbat formatutan argitaratutako dokumentuen kasuan erabiliko da: CD-ROM, disketea, Interneta, etab.

Adierazleak

Lehena # Zehaztugabea

Bigarrena # Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

\$a Eskuragarri dauden bestelako euskarri fisikoei buruzko oharra (EE)

Oharra aldatu egingo da eskura dagoen euskarri gehigarriaren arabera:

Gaztelania	Euskara
Disponible en Internet	Interneten
Disponible en CD-ROM	CD-ROMean
Disponible en otras plataformas	Beste plataforma batzuetan

- a) Linean eskuragarri. Argitalpenaren eduki osoa eta/edo aurkibideak Internet bidez eskura badaitezke, **T856** eremua bete behar da.

“**Disponible en Internet**” edo “**Interneten**” oharrak erabiliko dira, eta **T856** eremuan zehaztuko dugu zer zati dagoen/dauden eskuragarri.

Adibideak:

T530 ## \$aDisponible en Internet

T856 4# \$u<http://www.xxxxxxx.net> **\$y**Internet (Publicación)

T530 ## \$aInterneten

T856 4# \$u<http://www.xxxxxxx.net> **\$y**Interneten (Argitalpena)

- b) Beste euskarri fisiko batzuetan (CD-ROM, mikroforma, etab.) eskuragarri. Kasu horretan, **T776** eremua bete beharko da, baliabidea modu independentean katalogatuko da eta bi erregistroak lotuko dira.

Ejemplo:

T245 00 \$a Fifa 17 [\$h Archivo de ordenador]

T300 ## \$a 1 disco (Wii)

T530 ## \$a Disponible en otras plataformas
--

T776 0# \$t Fifa 17 (PS3)

T776 0# \$t Fifa 17 (Xbox)

T536 FINANTZAZIOARI BURUZKO INFORMAZIO OHARRA (E)

Kontratu, diru-laguntza eta proiektu zenbakia, materiala diruz lagundutako proiektu batetik datorrenean. Babesleari edo finantza-agentziari buruzko informazioa ere gehitu daiteke.

Adierazleak

Lehena #
 Zehaztugabea

Bigarrena #
 Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

\$a Oharraren testua (EE)

Garrantzitsutzat jotzen bada, bigarren mailako sarrera egingo da (T710).

Adibidea:

T536 ## \$aCaja Vital, Obra Social

T710 2# \$aCaja Vital. **\$b**Obra Social

T911 2# \$aVital Kutxa. **\$b**Gizarte Ekintza

Babesle bat baino gehiago adierazten badira, puntu eta koma (;) baten bidez bereiziko dira.

Adibidea:

T536 ## \$aCaja Vital ; BBK ; Kutxa

T538 SISTEMAREN EZAUGARRIEI BURUZKO OHARRA (E)

Dokumentu bati buruzko informazio teknikoa jasotzen du, esaterako, ordenagailu-fitxategi baten ezaugarri fisikoak (programazio-lengoaia, ordenagailuaren edo periferikoen ezaugarriak: sistema eragilea edo memoria, etab.).

Adierazleak

Lehena	# Zehaztugabea
	# Zehaztugabea. (Lehenetsita)
Bigarrena	1 Sistemaren ezaugarriak
	2 Sartzeko modua

Azpieremu-kodeak

\$a Sistemaren ezaugarriei buruzko oharra (EE)

Lotura bidez bistaratzekoa

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez hitzekoa idaztea, programak automatikoki sortuko duelako dagokion katalogazio-hizkuntzan, betiere **T040** eremuko \$b behar bezala betetzen bada.

2 adierazlea	Castellano	Euskera
1	Detalles del sistema:	Sistemaren ezaugarriak:
2	Modo de acceso:	Sartzeko modua:

Eremu horretan, fitxategia erabiltzeko sistemak beharrezko dituen ezaugarriak jasoko dira, aurretik puntu eta koma dutela eta honako hurrenkera honetan:

- Ordenagailuaren marka eta modeloa (Pc edo Mac) Bideo-konsoletarako fitxategi espezifikoaren kasuan, horren eredia adieraziko da. Adib.: PSP (PlayStation Portable).
- Sistema eragilearen izena.
- Memoria-edukiera.
- Tresna periferikoak.

Adibideak:

MARC bistaratzea:

T538 #1 \$aSE Windows, Periferikoak: Teklatua eta sagua. Prozesadorea: Intel Core 2 Quad edo atzekoa. Bideo-txartela NVIDIA Geforce GT 220 1GB/AMD Radeon HD 6450 1GB. RAM Memoria: 2 GB. Disko zurrana 10 GB. Irakurgailua DVD-ROM. Soinu txartela: Direct X9.0c-rekin bateragarria

T538 #1 \$aRequisitos mínimos: Windows 7 SP1 de 64 bits, Windows 8.1 de 64 bits, Windows 10 de 64 bits; procesador Intel Core i5 2500 /AMD FX-6300; memoria 8 GB; procesador gráfico nVidia GTX 750 Ti/ATI Radeon R9 Series; DirectX 11; conexión de banda ancha a Internet; 25 GB de espacio disponible en el disco duro; tarjeta de sonido compatible con DirectX; mando compatible: mando inalámbrico Xbox 360/mando inalámbrico Xbox One para Windows (o equivalente) recomendado

T538 #1 \$aSe necesita una cuenta de Steam

T538 #1 \$aPC compatible con procesador 486DX2-66 o Pentium; Windows 3.1 o Windows 95; 8 MB de memoria RAM; lector de CD-ROM de doble velocidad; tarjeta de sonido de 16 bit; tarjeta gráfica súper VGA con 256 colores; ratón

ISBD bistaratzea:

Detalles del sistema: PC compatible con procesador 486DX2-66 o Pentium; Windows 3.1 o Windows 95; 8 MB de memoria RAM; lector de CD-ROM de doble velocidad; tarjeta de sonido de 16 bit; tarjeta gráfica súper VGA con 256 colores; ratón

T540 ERABILERA- ETA ERREPRODUKZIO-BALDINTZEI BURUZKO OHARRA (E)

Behin materiala eskuratuta, horren erabilera zuzentzen duten baldintzak dira. Honakoak barne hartzen ditu, nahiz eta ez den soilik horretara mugatzen: materiala erreproduzitzeko, erakusteko, moldatzeko, aipatzeko edo bestelakoetarako eskubidea murrizten duten copyright, filmen eskubide, salmenta-murriztapenak etab.

Adierazleak

Lehena **# Zehaztugabea**

Bigarrena **# Zehaztugabea**

Azpieremuko kodeak

\$a **Erabilera- eta erreprodukzio-baldintzak (EE)**

Adibidea:

T540 ## \$aLicencia Creative Commons

T540 ## \$aCreative Commons lizentzia

T546 HIZKUNTZARI BURUZKO OHARRA (E)

Ohar horrek deskribatutako materialen edukia helarazteko erabilitako hizkuntza edo notazio-sistema adierazten du. Halaber, dokumentuan azaltzen diren alfabetoak, idazkerak edo bestelako ikurrak deskribatzeko ere erabiltzen da eremu hori. Informazioa kodifikatuta ageri da, T008 eta T041 eremuetako 35-37 posizioetan.

Adierazleak

Lehena #
 Zehaztugabea

Bigarrena #
 Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

§a *Hizkuntzari buruzko oharra (EE)*

Dokumentuaren hizkuntzak idazteko orduan, ohar horietan hizkuntza bakoitzaren hurrenkera alfabetikoari jarraituko zaio (adibidez: “*Testua alemanez, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez*” euskarazko dokumentuen kasuan, eta “*Texto en alemán, castellano, euskera e inglés*” gaztelaniazko dokumentuen kasuan). Horrela bada, oharretako hizkuntza-hurrenkerak ez du zertan bat etorri **T041** etiketan jasotako hizkuntza-kodeen hurrenkerarekin. Izan ere, kode horiek ingelesez daudenez (adibidez: §abaq§aeng§ager§aspa) beti hurrenkera alfabetiko berean idazten dira dokumentuaren hizkuntza zeinahi izanik ere.

Eskuliburu honen 1. eranskinean hizkuntza- eta kode-zerrenda bat dago ikusgai.

§a - Hizkuntzari buruzko oharra (EE)

Adibideak:

T546 ## §aTexto en inglés y castellano

T546 ## §aTexto en catalán, castellano y alemán

T546 ## §aTestua euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz, ingelesesko laburpenekin

T546 – SARIEI BURUZKO OHARRA (E)

Deskribatutako ordenagailu-dokumentuarekin lotutako sariei buruzko informazioa: sariaren izena eta urtea koma batez bereizita idatziko dira. Sari bakoitzeko, eremua errepikatuko da.

Adierazleak

Lehena	# <i>Sariak</i> 8 Ez du lotura bidez bistaratzekorik sortzen. (Lehenetsita)
Bigarrena	# Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

\$a *Sariei buruzko oharra (EE)*

\$a - Sariei buruzko oharra (EE)

Adibideak:

T586 8# \$aPremio al mejor videojuego del año en el Festival Fun & Serious, 2014
T586 8# \$aPremio Möbius internacional al mejor programa educativo, 1996
T586 8# \$aPremio Hola Familia al mejor producto familiar, 2003

T594 IZENBURUARI ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUARI BURUZKO OHARRA (E)

Izenburuari eta erantzukizunaren aipuari buruzko informazioa barne hartzen du, betiere informazio hori deskribapenerako garrantzitsua bada eta T245 eremuan jaso beharrekoa ez bada.

Adierazleak

Lehena #
 Zehaztugabea

Bigarrena #
 Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

\$a *Izenburuari eta erantzukizunaren aipuari buruzko oharra (EE)*

Bertan, ohar hauek transkribatuko dira:

- **Jatorrizko izenburua:**
- **(Idioma)** hizkuntzatik itzulia. Deskribatutako lana beste baten itzulpena denean, baina ezin denean jatorrizko izenburua zein den jakin, dokumentuaren jatorrizko hizkuntza adierazten duen ohar hau idatziko da.
- **Izenburua gaztelaniaz:**
- **Título tomado del etiqueta del disco / Izenburua diskoaren etiketatik hartua.**

Ejemplos:

T594 ## \$aizenburua diskoaren etiketatik hartua

T594 ## \$aTítulo tomado de la funda

T6XX GAI SARRERA GEHIGARRIEN EREMUAK – INFORMAZIO OROKORRA

T6XX eremuek gai-sarrerak eta -terminoak barne hartzen dituzte. Eremu gehienek sarrera gehigarriak dituzte, dokumentu baten edukia berreskuratzeke.

(Ik. Autoritateak)

Oinarrizko irizpideak:

- Gai berri bat gehitu aurretik, AUTOn bilatu behar da, dagoeneko sortuta badago ere.
- Jarraian gaien bigarren mailako sarrera-motak eta AUTOn duten elkarrekikotasuna jasotzen dira:

	CATA	AUTO
Pertsona-izena	T600	T100
Erakunde korporatiboaren izena	T610	T110
Biltzarraren izena	T611	T111
Izenburu hautatua	T630	T130
Gai-terminoa	T650	T150
Izen geografikoa	T651	T151
Generoa/forma	T655	T155

Gai-sarrera gehigarri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion gai elebiduna ere atzitu beharko dugu.

AUTP

Kontsulta

☐ Zehatza

Autoritatea

- ☐ «a»Txirrita («d»1860-1936)
 - < «a»Chirrita («d»1860-1936)
 - < «a»Lujanbio, Manuel («d»1860-1936)
 - < «a»Lujanbio, Jose Manuel («d»1860-1936)
 - < «a»Lujanbio Retegi, Jose Manuel («d»1860-1936)
- ☐ «a»Txirrita («d»1860-1936). «t»Norteko trenbide-«x»Critica e interpretación
- ☐ «a»Txirrita («d»1860-1936)-«v»Biografiak
 - ☐ = «a»Txirrita («d»1860-1936)-«v»Biografias«ZZ0090937»
- ☐ «a»Txirrita («d»1860-1936)-«v»Biografiak-«v»Haur eta gazteentzako liburuak
 - ☐ = «a»Txirrita («d»1860-1936)-«v»Biografias-«v»Libros infantiles y juveniles«Z...
- ☐ «a»Txirrita («d»1860-1936)-«v»Biografias
 - ☐ = «a»Txirrita («d»1860-1936)-«v»Biografiak«ZZ0090938»
- ☒ «a»Txirrita («d»1860-1936)-«v»Biografias-«v»Libros infantiles y juveniles
 - ☒ = «a»Txirrita («d»1860-1936)-«v»Biografiak-«v»Haur eta gazteentzako liburu...

T655 INDEXATZEKO TERMINOA – GENEROA / FORMA (E)

Deskribatzen dituzten materialen generoa, forma edota ezaugarri fisikoak adierazten dituzten terminoak. Gure kasuan, Liburutegi Zerbitzuak osatutako generoen zerrenda baliatuko dugu⁴.

T655 eremuan ezarritako epigrafe batean ere sailkatu ezin daitezkeen dokumentuen kasuan, katalogatzaileak dagokion arloaren arabera adierazi beharko du dokumentua, BETIERE genero/forma terminoa gehituz (**T655**) “*Programak*”, horretarako bereziki sortutakoa.

Salbuespenak:

- “*Multimedia entziklopediei*” dagokien **T655** kodeaz aparte, lantzen den gaiari dagokion goiburua jarri behar dugun multimedia entziklopediak.
- Proposatutako epigrafe batean ere sartu ezin diren ordenagailu-fitxategiak.

Eremu hori Autoritate bati lotuta dago

(Ik. Autoritateak)

Adierazleak	
Lehena	# <i>Oinarrizkoa</i> 0 <i>Fazetakakoa</i>
Bigarrena *	1 <i>Gaztelaniaz bakarrik balio duen autoritatea.</i> Gaztelaniazko autoritateak 4 <i>Euskaraz bakarrik balio duen autoritatea.</i> Euskarazko autoritateak 7 <i>Autoritate bakarra.</i> Autoritate "bakarrak", hots, euskaraz eta gaztelaniaz berdin-berdinak direnak.

Gai-sarrera gehigarri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion gai elebiduna ere jaso beharko dugu, beste T655 eremu batean.

Adibideak:

T655 #4 \$aOrdenagailuko joko hezigarriak

T655 #1 \$aJuegos de ordenador educativos

T655 #1 \$aEnciclopedias multimedia

⁴ Ikus 1. Eranskina, “Ordenagailu-fitxategietarako generoen zerrenda”

* Autoritateen katalogoan (AUTO), T1XX eremuen bigarren adierazlea beti da ez definitua (#); horregatik, katalogatzaileak eskuz egin beharko du erregistro bibliografikoaren (CATA) bigarren adierazlearen aldaketa, 1, 4 edo 7 jarrita.

T7XX SARRERA GEHIGARRIAK – INFORMAZIO OROKORRA

Idazlan batekin nola edo hala erlazionatuta dauden izenen eta/edo izenburuen bitartez eratutako sarrera gehigarriak dira, bibliografia-erregistro batera sartzea ahalbidetzeko helburuarekin.

Eremu horiek autoritate bati lotuta daude

(Ik. *Inprimaki modernoak*)

Eremuok betetzeko orduan, jarraibide hauek hartuko dira kontuan:

- Katalogazio Arauek ezarritakoaren arabera esleituko dira.
- Arreta berezia jarri behar da bigarren adierazlean, bigarren mailako sarrera sortze aldera.
- Bigarren mailako sarrerak sortuko dira hurrengoentzat: egilekideak, edizioaren apailatzaileak, hitzaurre-egileak, erakundeak, itzultzaileak eta ilustratzaileak; betiere informazio-iturri nagusian agertzen badira edota katalogazio-zentroarentzat garrantzitsuak badira.
- Funtzioa soilik (ilustratzailea, argitaratzailea, etab.) aipatzea ekidingo da.

CATA eta AUTO eremuen arteko elkarrekikotasunak honako hauek dira:

	CATA	AUTO
<i>Pertsona-izena</i>	T700	T100
<i>Erakundearen izena</i>	T710	T110
<i>Biltzarraren izena</i>	T711	T111
<i>Izenburu hautatua</i>	T730	T130

Sarrera gehigarri batzuk euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Kasu horretan, bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion autoritate elebiduna ere atzitu beharko dugu, T9XX eremu batean.

AUTE

Kontsulta

☐ Zehatza

Autoritatea

- ☐ «a»Euskadi. «b»Antzerti Zerbitzua
 - < «a»Euskadi. «b»Kultura Saila. «b»Antzerti Zerbitzua
 - < «a»Euskadi. «b»Antzerti Zerbitzua
 - < «a»Euskadi. «b»Kultura Saila. «b»Antzerti Zerbitzua
 - ☐ = «a»Euskadi. «b»Servicio de Arte Dramático«ZZ0073327»
- ☐ «a»Euskadi. «b»Centro de Patrimonio Cultural Vasco
 - ☐ = «a»Euskadi. «b»Euskal Kultura Ondarearen Zentroa«ZZ0074935»
- ☒ «a»Euskadi. «b»Departamento de Cultura
 - < «a»País Vasco. «b»Departamento de Cultura
 - ☐ << «w»b «ZZ_»«a»Euskadi. «b»Departamento de Educación y Cultura«ZZ007...
 - ☐ << «w»b «ZZ_»«a»Euskadi. «b»Departamento de Cultura y Turismo«ZZ00692...
 - ☒ = «a»Euskadi. «b»Kultura Saila«ZZ0069215»

T700 SARRERA GEHIGARRIA – PERTSONA IZENA (E)

Eremu horretan bigarren mailako sarrera gisa erabilitako pertsona-izen bat jasotzen da.

Eremu hori autoritate bati lotuta dago

(Ik. Autoritateak)

Adierazleak

Lehena	0 Izena Izen berezi bat edo hurrenkera zuzenean jarritako hitzez, inisialez eta abarrez osatutako izen bat da.
	1 Abizena(k). Abizen sinplea edo konposatua, alderantzizko hurrenkeran.
	3 Familia-izena. Familia, klan, dinastia, etxe edo halako beste talde bat izendatzen du, zuzenean edo alderantziz.
Bigarrena	# Ez dago informaziorik. (Lehenetsita)
	2 Sarrera analitikoa. Dokumentuak bigarren mailako goiburuan jasotako idazlana barruan hartzen duela adierazten du.

Pertsona-izenaren sarrera gehigarri batzuk euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Kasu horretan, bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion pertsonaren izen elebiduna ere atzitu beharko dugu, T910 eremu batean.

